



**Espedientea: 2HI-061/17-P03-A  
BASAURI  
Hiri-antolamendurako Plan  
Nagusiaren Aldaketa  
puntuala, SR-7 AZBARRENari  
dagokiona.**

**Expediente: 2HI-061/17-P03-A.  
BASAURI  
Modificación puntual del  
Plan General de Ordenación  
Urbana en SR-7 AZBARREN.**

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN BIZKAIKO HIRIGINTZA PLANGINTZA ATALEKO IDAZKARIAK

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE BIZKAIA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

ZIURTATZEN DUT Bizkaiko Hirigintza Plangintzaren Atalak abenduaren 13an izandako 5/2017 bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

CERTIFICO que en la Sesión 5/2017, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Bizkaia celebrada el día 13 de diciembre, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

**“I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

**“I. En materia de Ordenación Territorial:**

I.- “Basauriko Hiri Antolamendureko Plan Nagusiaren aldaketa puntuala SR-7 Azbarren” delako espedienteari aldeko irizpena ematea, ondoren aipatzen den araudiari jarraiki lotesleak diren alderdien gainean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea betetzen baitu eta ondorengo hauetara egokitzen baita: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeko lurralde antolamenduko tresnak, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdiak.

I.- Informar favorablemente el expediente de “Modificación del Plan General de Basauri relativa al sector SR-7 Azbarren”, en lo que respecta al cumplimiento de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a su adecuación a los instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos.

II. Kontuan hartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorra betez, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko zaizkie Lege honen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko dira 2021eko irailaren 20a baino lehen.

II. Se deberá tener en cuenta que, en cumplimiento de lo establecido en la Disposición Transitoria Segunda de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, todos los Planes Generales de Ordenación Urbana y Normas Subsidiarias del planeamiento deberán ser adaptados a las determinaciones de la Ley mencionada con anterioridad al 20 de septiembre de 2021.

II. Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari honako hauek txostenak bidaltzea: Etxebizitza Sailburuordetza (I eranskina); URA-Uraren Euskal Agentzia (II. eranskina) eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritza (III. eranskina). Ziurtagiri honekin batera doaz txostenak.”

II. Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo I); por URA-Agencia Vasca del Agua (Anexo II); por la Dirección de Infraestructuras de Transporte (Anexo III), que se acompañan a la presente certificación.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2017ko abenduaren 13an.

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 13 de diciembre de 2017.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO



Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga